

16. ORDENANTZA

Ordenantza fiskala, Udalaren haur eskolan zaintza eta egonaldi zerbitzua egiteko prezio publikoak arautzen dituen

Oinarria

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko I. Tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatuarekin bat, eta lege horretako 28. artikulua xedatuaren babesean.

ORDAINDU BEHARRA

2. artikulua. Udalaren 0-3 urtekoendako Haur Eskolako zerbitzuez baliatzen diren adin txikien gurasoak, tutoreak edo legezko ordezkariak daude tasa ordaintzera behartuak, betiere haien gurasoen ahalgoa badute, Kode Zibilaren 162. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

KUDEAKETA ETA DIRU-BILKETA ARAUAK

3.1 artikulua. Hilabete osoetan eta aitzinetik ordaindu beharko da prezio publikoa, eta Udalaren Haur Eskolan onartua izateko nahitaezko baldintza izanen da ordainagiria erakustea.

3.2 artikulua. Tarifak zehazteko oinarritzat hartuko dira familiako kide guztiek eskuratzen dituzten diru-sarrerak. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitortpenean familia unitateari dagokion zerga-oinarriak adierazten ditu familiaren diru-sarrerak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena aurkezteko obligaziorik ez dutenek, honako hau aurkeztu beharko dute:

-Nafarroako Gobernuaren ziurtagiria, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena aurkeztu ez dela adierazten duena.

-Haur eskolaren zerbitzua eskatzen duten adingabeen guraso, tutore edo legezko ordezkarien lan bizitzari buruzko txostena, eta familiaren diru-sarrerak zehazteko beharrezkotzat jotzen diren agiri guztiak (soldaten ziurtagiriak, pentsioenak, TC2, eta abar).

TARIFAK APLIKATZEA

4.1 artikulua. Tarifei dagokienez, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren eta toki entitateen artean sinaturiko hitzarmenei atxikitako haur hezkuntzako ikastetxeentzat Nafarroako Gobernuak urtero onesten dituen haixek aplikatuko dira.

Udalak eranskinetako tarifak aldatuko ditu, Nafarroako Gobernuak tarifa berriak finkatzen dituen aldiro, ikasturtea hasi baino lehen.

4.2 artikulua. Haur Hezkuntzako ikastetxean bi seme-alaba dituzten familiek %50eko beherapena izanen dute bigarren haurragatik dagokien tarifyan, eta ordenantza honetan ezartzen den tarifa apalenaren parekoa izanen da, gutenez.

4.3 artikulua. Haur Eskolako ikastetxera 3 seme-alaba edo gehiago eramaten dituzten familiek %50eko beherapena izanen dute bigarren seme-alabaren tarifyan, eta apalena hirugarren edo hurrengo seme-alaben tarifyetan.

4.4 artikulua. Tarifa aplikagarria zehazteko, urteko per capita errenta hartuko da kontuan, hau da, familiaren diru-sarrera guztien eta familia osatzen duten kide kopuruaren arteko zatiketaren emaitza. Familia-unitatearen zerga-oinarria, PFEZaren aitorpenean ageri dena, hartzen da familiaren diru-sarreratzat.

4.5 artikulua. Matrikula egiteko unean ezarriko dira tarifak, eta ikasturtean ezin izanen dira berrikusi edo aldatu.

4.6 artikulua. Ikastetxean matrikulaturik dauden haur guztiek eskolatzeko tarifa ordaindu beharko dute; ordaintzera behartuta dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla eta, zerbitzua edo jarduera egiten ez denean bakarrik itzuliko da haren zenbatekoa. Matrikula egiteak, borondatezko baja eskatzen den kasuetan izan ezik, ikastetxera joatera eta ikasturtean hamar hilabeteko ordaintzera behartzen du. Matrikula ikasturtea hasita dela egiten bada, haurra ikastetxean hasten den unetik aitzina ordainduko dira tarifak, eta hainbanaketak eginen dira hamabostaldiz hamabostaldi.

4.7 artikulua. Ezarriko den epearen barrenean, errentaren azkeneko aitorpena edo 5. artikuluko bigarren paragrafoan zehaztutako diru-sarreraren frogagiriak aurkezten ez dituztenei, edo horiei aski irizten ez bazaie, gehieneko kuota aplikatuko zaie.

4.8 artikulua. Behin hartarako onartua izanez gero, jantokiagatik ordaindu beharra zerbitzua egitetik beretik sortzen da, erabili ala ez.

Bai jantokiko zerbitzurako onarpenak bai Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoak ematen dituen diru-laguntzek onarpenaren ondoko hilean izanen dute eragina.

Bakarrik egokitzen ahal den aldiak eta gurasoak eta hezitzaileak bat etorrita gibelatzen ahalko da jantokian sartzea, eta betiere gutenez 15 egun eta gehenez hilabete. Halakoetan, zenbat denboraz etorri den, horren arabera izanen da kuota.

FAMILIAREN PER CAPITA ERRENTA (euroak)		ESKOLATZEA (Ikasturtea)	JANTOKIA (Ikasturtea)	ESKOLATZEA JANTOKIA	+
GUTIENEKOA	GEHIENEKOA				
Kopuru honetatik behera					
Kopuru honetatik goira					